

Ipuinen munduan sartuko da Alegiako 'Udazkenen Kulturala' aste honetan

'Udazkenean Kultura'k umeei zabalduko dizkie ateak bihar arratsaldean.

DV. Seguru asko, Alegiako hainbat eta hainbat gaztetxok gogoan izango dute Amaia Zinkunegi, joan den apirilaren 2an, Haur eta Gazteentzako Liburuaren Egunean alegia, herrira etorri baitzen guztieie ipuinak kontatzera.

Orduko hartan eta beste hainbat ipuinen artean, Joanes eta Bioletaren ipuina kontatu zien kontalari debarrak liburutegian bildu ziren haur guztiei. Do, re, mi, hanka oker mon ami, fa sol la, zuzendu zaiola..., oraindik ere gogoan izango dute Bioleta panpinak, Joanes mutikoak txirula jotzen zuen bitartean abesten zuen kantua.

Aste honetan ere, beste hamaika istorio miragarri altzoan hartuta etorriko da Amaia Zinkunegi Alegiara, eta irudimenari hegan egiten utzita, bidaia liluragarri batera eramango ditu herriko txikienak.